

BATTERY-DROP

Funtsezko baliabidea

Gure negozioak aurrera egin dezan arrakastarako bidean, zenbait baliabideren laguntzara jo beharko dugu, izan fisiko zein intelektualak. Baliabide fisikoei begira, aplikazioa merkatura salto egitera ahalbidetuko duen programaziorako prestaketa izango lirateke. Beste hitz batzuetan, aplikazioa sortzeko beharko genituzkeen tresnak; hala nola, ordenagailua (bat baino gehiago) eta mugikorra (bat baino gehiago). Ordenagailuan hartuko luke leku aplikazioaren programazioak, eta bertan joango litzateke dena forma hartzen. Mugikorraren kasuan, behin dena eginda, ea funtzionatzen duen ala ez frogatzeko izango litzateke gehien bat. Bi pertsonak deskargatu eta arazorik gabe badabil, merkaturako prest egongo da azken toke batzuk eman ondoren.

Baliabide intelektualei begira, taldekideen ezagutza teknologiaren mundu zabal honetan ezinbestekoa izango litzateke, bestela inork ez zuelako jakiterik izango hau dena nola eraman aurrera. Horretarako, zeinbat taldekideen ofizioez baliatuko gara, programazioaren inguruan denek oinarrikoenak diren ideiak dituzten arren, informatiko, software-eko ingeniari eta programa diseinatzaileen jakituria inoiz baino lagungarriagoa egingo zaigu. Programazioa alde batera utzita, gure aplikazio zein negozioa ezaguna egin dadin, marketing eta publizitate ikasketak eginiko taldekideei esker, bezeroak erakar ahalko genituzke eta berritasun honi ikuspegi on bat eman etorkizun batean lortzea duen arrakastarako bideak irekitzeko.

Finantza baliabideak azkenik, bakoitzaren aurrezkiak izango lirateke hasiera batean, gauzak itxura ona hartuko balute, bakoitzak bere boltsikotik ipini beharko luke diru kantitate jakin bat. Taldekide guztiak gaude lanean eta aplikazio hau sortzeko ideia guztiz borondatezkoa izan zen, oso ohikoa den arazori horri irtenbide erabilgarriren bat emateko asmoz. Ez genuen etorkizun batean bertatik bizitzeko bezalako proiektu bezala definitu beraz, gauzak ere ez balira uste bezala aterako ez ginateke inbertitutako diruaz damutuko.